## Videoteca de Baketik, el Centro por la paz de Arantzazu

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as… Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

# Blade Runner

## Ficha técnica

TÍTULO: Blade Runner.

AÑO: 1982.

DURACIÓN: 112 min.

PAÍS: USA.

DIRECCIÓN: Ridley Scott.

REPARTO: Harrison Ford, Sean Young, Rutger Hauer, Daryl Hannah, Edward James Olmos, Joanna Cassidy, Brion James, Joe Turkel, Edward James Olmos, William Sanderson, M. Emmet Walsh, Joe Turkel, James Hong, Hy Pyke, Morgan Paull, J. Edward Allen.

PRODUCCIÓN: Warner Bros Pictures.

## Sinopsis

Los Ángeles. Con el siglo XXI recién estrenado los humanos tienen que enfrentarse a una nueva amenaza: la de sus propias criaturas; unos robots casi perfectos llamados Nexus 6, producto de una ingeniería genética muy avanzada y que son empleados en trabajos peligrosos y como esclavos en las colonias exteriores de la Tierra. Han iniciado una revuelta contra sus creadores informáticos. Se sabe que cuatro han regresado a la Tierra con inquietantes intenciones respecto a su programador. Para ello la policía contrata a Deckard, un blade runner, es decir, un especialista en eliminación de replicantes, como se denominan genéricamente estos robots. La trama se complica cuando Deckard toma conciencia de los estrechos márgenes que separan a los seres humanos de estos seres y cuando averigua que su único delito es haber comprendido que van a morir y tratan de evitarlo.

## Temática

### Condición humana, muerte y ética

**Condición humana**. La película muestra una reflexión sobre la condición humana. Reflexión que trata de abordar la constante pregunta sobre qué significa ser humano.

**Muerte**. La historia describe el peso de la finitud en la realidad de la vida. La muerte confiere a la vida una perspectiva distinta porque provoca que la existencia sea una experiencia única e irrepetible.

**Ética**. La película refleja la relación entre la ética y la capacidad creadora del ser humano en su afán por descubrir y controlar la vida.

## Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película…

**…hacia adentro.** Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

**…hacia fuera.** Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

**…no sólo con la cabeza, también con el corazón.** Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

**…y después de algún tiempo repensar.** Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

## Algunas preguntas…

**…antes de la película**

·Sobre lo humano: ¿Qué significa ser humano? ¿Qué nos humaniza o deshumaniza? ¿Es la empatía un indicador de humanización?¿Por qué?

·Sobre la muerte: ¿La realidad de la muerte cambia nuestra vida? ¿Por qué?

·Sobre la libertad: ¿En qué basamos nuestra libertad? ¿Somos libres?

**…después de la película**

· «Oye, ese test vuestro de Voight Kampff, ¿te lo has hecho a ti mismo alguna vez?». Esta pregunta de Rachel suscita alguna duda sobre la naturaleza humana de Deckard. ¿Es o no Deckard un replicante? ¿Por qué? ¿Qué implica que el héroe de la película pueda ser un replicante?

·¿Qué significa la partida de ajedrez entre Tyrell y Sebastian? ¿Y las figuras origami que van apareciendo en diversas escenas?

·«Yo he visto cosas que vosotros no creeríais. (...) Todos esos momentos se perderán en el tiempo como lágrimas en la lluvia. Es hora de morir». ¿Qué significan estas palabras de Roy?

Con la colaboración de Itxasne Etxeberria.

baketik arantzazu

Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa

Centro por la paz
Elaboración ética de conflictos

**zeurekin eta besteekin bizitzeko** zinema

# Blade Runner




baketik arantzazu

Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa

Centro por la paz
Elaboración ética de conflictos

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA · DEPARTAMENTO DE CULTURA

943-251005 www.baketik.org

## Baketik Arantzazuko Bake zentroko bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak… Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

# Blade Runner

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Blade Runner.

URTEA: 1982.

IRAUPENA: 112 min.

HERRIALDEA: AEB.

ZUZENDARIA: Ridley Scott.

AKTORE-ZERRENDA: Harrison Ford, Sean Young, Rutger Hauer, Daryl Hannah, Edward James Olmos, Joanna Cassidy, Brion James, Joe Turkel, Edward James Olmos, William Sanderson, M. Emmet Walsh, Joe Turkel, James Hong, Hy Pyke, Morgan Paull, J. Edward Allen.

EKOIZPEN-ETXEA: Warner Bros Pictures.

## Sinopsia

Los Angeles. XXI. mendearen hasieran gizakiek mehatxu berri bati egin beharko diote aurre, sortu dituzten izakiei. Nexus 6 izeneko robot ia perfektuak dira, injenieritza genetiko oso aurreratuaren emaitza, eta lan arriskutsuetarako eta Lurretik kanpoko kolonietan esklabu bezala erabiltzen direnak. Sortzaile informatikoen kontrako matxinada hasiko dute. Horietako lau robot euren programatzaileak hiltzeko asmoz bueltatuko dira Lurrera. Robot horiek akabatzeko poliziak Deckard blade runner espezialista kontratuko du. Dena korapilatu egingo da Deckard izaki horiek eta gizakiak oso hurbil daudela konturatzen denean, eta beren delitu bakarra, hil egingo direla ohartuta, hori saihesteko nahia dela ulertzen duenean.

## Gaiak

### Giza izaera, heriotza eta etika

**Giza izaera**. Filmak giza izaeraren inguruko gogoeta egiten du. Gizaki izateak zer esan nahi duen erantzun ezinezko galderari erantzuna ematen saiatzen da gogoeta hori.

**Heriotza**. Bizitzaren errealitatean betiereko ez izatearen pisua deskribatzen du istorioak. Heriotzak bizitzari ikuspegi berria ematen dio bizitza esperientzia bakar eta errepikaezin bezala ulertzea dakarrelako berarekin.

**Etika**. Etikaren eta bizitzaz jabetzeko eta hori kontrolatzeko gizakiaren gaitasun sortzailearen arteko harremana islatzen du filmak.

## Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

**…barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.
**…kanpora begira.** Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.
**…ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere.** Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.
**…eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu.** Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

## Zenbait galdera…

**…pelikula ikusi aurretik**

·Gizakiaren inguruan: Zer esan nahi du gizaki izateak? Zer gizatiartzen gaitu eta zerk ez? Gizatasunaren erakuslea al da enpatia? Zergatik?
·Heriotzaren inguruan: Heriotzaren errealitateak gure bizitza aldatzen al du? Zergatik?
·Askatasunaren inguruan: Zertan oinarritzen dugu gure askatasuna? Askeak al gara?

**…pelikula ikusi ondoren**

·«Aizu, Voight Kampff-en test hori, egin al diozu inoiz zeure buruari?». Rachel-en galdera horrek Deckard-engan gizakia ote deneko zalatza sorrarazten du. Deckard erreplikantea da ala ez? Zergatik? Zer ondorio dakar filmeko heroia erreplikantea izateak?
·Zer esan nahi du Tyrell-en eta Sebastian-en arteko xake-partidak? Eta zenbait eszenatan agertzen diren irudi origamiak?
·«Zuek sinestuko ez zenituzketen gauzak ikusi ditut. (…) Une hauek guztiak galdu egingo dira malkoak euri artean bezala. Hiltzeko ordua da». Zer esan nahi dute Roy-ren hitz hauek?

Itxasne Etxeberriaren laguntzarekin.

baketik arantzazu
Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa
Centro por la paz Elaboración ética de conflictos

Cine para **vivir y convivir**

# Blade Runner




baketik arantzazu
Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa
Centro por la paz Elaboración ética de conflictos

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

943-251005

www.baketik.org